

## **2006ko urtarrilak 2**

Bata bestetik zeharo urrun diruditen ikuspegi edo jarrera aurkakoena ere bidera daitezke, zein bere aldetik, bata bestearekin harremanetan jarri gabe, “bai, baina ez” bateraino bata, “ez, baina bai” bateraino bestea. Eta behin horretaraino iritsita, bi jarrera edo ikuspegi horiek ez dira horren urrun eta horren aurkako ageriko.

## **2006ko urtarilak 12**

Hiriko zurrumbilotik irtetea, urbanizatu gabeko eremu baten desordenak lasaitu egin nau, babestuta sentiarazi, etxean bezala.

## **2006ko urtarrilak 16**

Ez naiz gurasoek irakatsi zidaten bezala bizi. Eta pozgarria zait hori.

Baina ez zait iruditzen nire bizitzeko modua gurasoek irakatsitakoa baino hobea denik funtsean. Eta hori ere pozgarria zait.

\* \* \*

Arrazoi osoa zuen Bernardo Atxagak hitzaldi batean esan zuen hartan: *Fairy* markako baxera-garbigarri pixka batek lan asko egiteko aukera ematen du. Beste marka bateko baxera-garbigarria erabiltzen dudana bakoitzean –*Alin* markakoarekin proba egitea egokitu zait gaur–, Atxagaz oroitzen naiz, eta aspaldi eman zuen hitzaldi hartan arrazoi osoa zuela egiaztatzen dut.

## **2006ko urtarrilak 21**

Gero eta tristura gutxiago dago nire liburuetan, nire literaturan. Baina dagoen tristura trinkoagoa da, biluziagoa, benetakoagoa.

## **2006ko otsailak 1**

Isilunea. Ilusionea. Ilusioa. Isil loa.

## **2006ko otsailak 3**

Onartu nahi ez badugu ere –zein irriarriak gure ahalegin zoro askotarikoak–, aise adieraz daiteke, oso hitz edo keinu gutxirekin, gure izana eta gure emana, gutariko bakoitza zein denok batera garen guztia, zehatasun osoz, bete-betean. Laburbilduz: laburgarriak gara.

## **2006ko otsailak 5**

Esnatu nintzenez, han ez zen dinosaurorik. Ipuina bukatua izango zela pentsatu, ohean buelta eman eta loak hartu ninduen berriro.

\* \* \*

Kantu batzuk etxeak dira, etxe ederrak. Beste batzuk harpeak dira, ederretik haratago.

### **2006ko otsailak 24**

Eta orain, barkatuko didazue zakarkeria, zakilaz beste egitera noa.

\* \* \*

Ikararaino izutuko gintuzke esnatzerakoan dinosauroa falta dela jabetzeak.

### **2006ko martxoak 3**

Langarra naizenean zuregana jotzen dut, langarretan. Eta inoiz ezer izatekotan langarra naizenean naiz, langarretan langar zuregana.

### **2006ko martxoak 10**

Koaderno honek izan zitzakeen beste izenburu batzuk: Autoerretratu; Autobihotzgrafia; Basoilarrak kantatzen dizu; Arimairua; Joan eta joan; Ahanzturaren artxipelagoa (II); Airibezak; Muinik muinena; Lits urratua; Guztiarekin ere; Izuaren gailurrik sakonenean; Udazkena barruan; Ez dok Armairu; Sei litro odol; Barrubideetan; Neure artean; Giza txuleta gordinak; Ilunari zizelez erauzitako argia; Munduaren ondoan; Hilotzez betetako zoriona; Halakorik inoiz berriro gerta ez dadin; Hedabideak iristen ez diren zokoan; Dudak eta damuak; Euria ere aterpe bila; Ezin; Ezin, ezin, ezin; Propaganda; Maiterominmena; Baraurik, biluzik, bakarrik; Nire bizitzako egunik txikiena; Gogoaren barrurik barrukoenean; Maitematikak eta liluratura; Labur esanda: ezer ez; Ederretik haratago; Desegokitua; Langarra; Langarrak; Langarra zuregana.

### **2006ko martxoak 12**

Traba nintzen baina kabitu naiz.

### **2006ko martxoak 18**

Estu hartuta, ez du merezi txirrindulari izatea Eddy Merckxen parekoa edo hura baino gehiago izateko aukerarik izan ezean; edo Miguel Indurainen neurrikoa bederen. Zertarako?

Gisa berean, ez du idazlea izatea merezi William Shakespeare, Jorge Luis Borges, Franz Kafka edo gisakoen parekoa izateko aukerarik izan ezean; edo historiako euskal idazlerik onena gutxienez. Zertarako?

Beraz, ni bezalakoak eta ni ezin gaitu eraman idazle izatera idazle izatea merezi duelako usteak, gure kasuan ez baitu inola ere merezi idazle izatea; hain gutxi, jakina, merezi dugulako usteak. Akabo ba!

Merezimendu guztietatik –eta merezimenduetatik eratorritako sari eta era guztietako onuretatik– aparte eta haratago idazle izan nahi dugulako baino ez du merezi, gure kasuan, inola ere merezi izatekotan, idazle izatea.

Eta nire kasuan merezi duelakoan nago.

## **2006ko martxoak 19**

### Anti-publi 3

Ibiltaria hirian, turista baten moduan dabil, irria ezpainetan, bazterren edertasunaz gozaten. Tarteka, elkar iraintzen, mehatxatzen eta jotzen ari den jendearekin egiten du topo. Ukabilekin ari dira borrokan batzuk, makilekin edo labanekin beste batzuk. Tiroak entzuten dira, baita jendea balaz jota erortzen ikusi ere, aparkatutako autoen artean, baina ez ibiltariak bere burua arriskuan sentitzeko bezain gertu. Eskuko telefonoa atera eta pozkarioz mintzo da ibiltaria, hirian oso gustura sentitzen dela aditzera emanez. Amaieran, errotulu txiki bat agerida pantailaren behealdean: “Hau ez da iragarkia.”

## **2006ko apirilak 7**

Ez naiz asko aritu horretan, baina nik uste dut haurrentzat literatura idaztea haiekin edozein bazterretan baloi kaxkar batekin futbolearen antzekoa izango dela. Horretan maiz samar aritu naiz. Eta gauza bat dakit: aise igartzen dute nor ari den benetan haiekin jolasean eta nor haur plantak egiten. Izugarri estimatzen dute nagusi bat baloiaren atzetik lurrean zilipurdika ikustea. Zoratzen jartzen ditu horrek.

## **2006ko apirilak 9**

### Anti-publi 4

*Efferalgan* tableta eferbeszentea, osorik, erdiko marraraino urez betetako *Duralex* edalontzi klasiko batean. Apurka-apurka desegiten hasten da. Goraka egiten hasi eta, ezinean bezala, behera egiten du berriro. Saiakera gisako mugimendu horiekin bat egiten duten oihu larriak entzuten dira. Horrela hainbat eta hainbat aldiz, harik eta azkenean, ordurako oso murriztua, eskastua, uraren azalera jo eta erabat urtuta geratu arte. Oihuak ere etsipeneraino eta isiltasun erabatekoraino joan dira apaltzen azken mugimendu horretan. Amaieran, errotulu txiki bat agerida pantailaren behealdean: “Hau ez da iragarkia.”

## **2006ko apirilak 10**

Beti izango duzu barruan zure futbol taldeak hurrengo partida gal dezan nahi duen zati bat. Zuk estimatuen duzun proiektu politikoak behin eta betiko erreka jo dezan nahi duen zati bat. Egunkarian berri txarrak aurkitu nahi dituen. Zure maitalea, emaztea, senarra, alaba, semea, gurasoak, adiskiderik minenak, jenderik maiteena hilik ikusi nahi dituen zeure zati bat, hor barruan. Zure asmoei porrota eta zuri nahigabea eta oinazea baino ezin opa diona. Beti izango duzu barruan zeure buruaz beste egin dezazun nahi duen zeure zati bat. Berak zure lekua hartu nahi balu bezala.

## **2006ko apirilak 22**

Ardo kontuei buruzko solasaldi batean harrapatzen nautenean, nik argi utzi ohi dut nirea hasieratik: ardoa gaseosarekin dut maiteen. Eta gustatzen zait literaturari buruzko solasaldietan ere antzera jokatzeari.

## 2006ko apirilak 29

Nik asmatutako fikzioek errealitatearekin inongo antzik badute, sexualitate hutsa da.

## 2006ko maiatzak 4

Azken egunetan ezin sinetsizko mugetaraino iritsi da Real Sociedad taldeak Espainiako Futbol Ligako sailkapenean duen egoeraren inguruko nire kezka obsesiboa. Bi partida baino ez ditu falta Liga amaitzeko, eta, jaitsierako postuetan ez dagoen arren, Realak ez du batere erraza lehen mailan jarraitzeko eskubideari eustea. Lehendik ere kezkaz jarraitu ditut Realak denboraldi honetan jokaturako partidak –emaitza denak dauzkat gogoan–, baina azken egunetan, amaiera kezkagarriaren tentsioak bultzatuta, burua libre dudan bakoitzean gai horretara joaten zait pentsamendua: “Cadiz eta Malaga gaindituak ditik behintzat Realak, baduk zerbait. Igandean Celtari irabazten badio, ia-ia ziurtatua izango dik salbazioa. Baina gainerakoan oso larri ibiliko duk, Alaves indartsu dagoela baitirudi. Litekeena duk, jakina, Espanyolek, Racingek edo Betisek, hiruretako batek, bururik ez altxatzea, baina ez zagok jakiterik...”.

Ondo dakit, jakina, Realaren Ligako azken emaitzaren gorabeheran ez dela funtseko ezer aldatuko ez nire bizitzan eta ez nire inguruan, baina ezin dut neure burua kontrolatu eta, nahi gabe ere, behin eta berriz joaten zait burua Espainiako Futbol Ligaren sailkapenaren azken postuetako lehia estura. Reala partida jokatzen ari den denboran, ez naiz partida irratiz jarraitzeko gauza sentitzen, gehiegi sufritzen baitut, baina buruan ez zait beste pentsamendurik sartzen, etenik gabe begiratzen dut erlojua, Realeko jokalarien ametsezko gol eder ugariak irudikatuz edo neure burua porrotik mingarrienerako prestatuz. Realak partida bat irabazten duen bakoitzean gustura ikusten ditut, poz-pozik, Ligako partida guztien laburpenak telebistan; Realak galtzen duenean, aldiz, horretarako barrurik gabe geratzen naiz, etsipen zozo baten mendean. Banekien jende askorentzat mingotsak izaten direla igande gauak futbol emaitzak gustuko ez dituztenean, baina ez nuen asko uste neu ere horretara iritsiko nintzenik. Hala da ordea. Ezin dut neure burua kontrolatu.

Txikitan futbolzalea eta Realzalea izan nintzen, baina nerabezaroan futbolari kasu egiteari utzi nion, eta gero, gazte garaian, futbola herriaren opioa dela salatu eta aldarrikatu nuen, kontzientzia eta konbentzimendu osoz. Urte askoan ez nion batere kasurik egin Espainiako Futbol Ligari. Baina orain dela bost bat urte zirrikitu txikia zabaldu nion nire buru barruko geletan Espainiako Futbol Ligari, Reala erreferentzia nagusitzat hartuta betiere. Realaren emaitzen inguruko interes lainoa baino ez zen orduan, guztiz isilpean gordea, lotsa ematen baitzidan artean ere inori Realaren azken partidako emaitzari buruz galdetzeak.

Baina nire buru barruko geletan eskainitako zirrikitu hura ikaragarri hazi da azken urteotan, apurka-apurka, arrakala beldurgarria bihurtzeraino. Lehen isilean jarraitzen nituen Realaren emaitzak, inori galdetu gabe, inorekin ezer komentatu gabe, disimulu txiki eta errazean. Baina orain jadanik ezinezkoa zait disimulatzea. Nahita ere ezin izango nuke, puntu horretaraino iritsi da nire obsesioa. Ez naiz Anoetara joaten Realaren partidak ikustera, ezta tabernerara ere, eta ez daukat Realaren elastikorik, bufandarik edo banderatzorik. Ez naiz gisa horretako futbolzalea, ezta izan nahi ere, eta gainera ez dut nire lagunartean edo nire inguruan horrelako kontuutarako aukera handirik. Baina ez dut ezkututzen Realaren emaitzen nire kezka, agerikoegia izaten baita nire ezinegona eta urduritasuna.

Espainiako Futbol Ligaren aurtengo ekitaldia amaitu arte, edo Realak salbazio matematikoa eskuratu arte bederen, larritsun horrekin biziko naizela etsita nago, ikasle garaian ikasturtea amaitu arte etsaminen inguruko larritasunarekin bizi izaten nintzen bezalaxe. Ikasketak amaitu nituenetik futbol kontuei begiratzen hasi nintzen arte, izan ditut antzeko beste aldi obsesiboak beste kontu batzuekin: txirrindulari lasterketa herrikoietan parte hartzea erabakitzen nuenean, ondo prestatu eta dena ondo egitea besterik ez nuen buruan izaten, eta lasaitu ederra hartzen nuen haiek amaitutakoan; orobat maratoia prestatu nuen garaian; eta Miguel Indurain Tourrean nagusitzen zen garaian ere kezka obsesibo bihurtu zen Indurainek Tourra ez irabazteari izaten nion izua, harik eta irabazi ez zuen arte, jakina.

Guztiarekin ere, kontu honi buruz hoztasunez eta arrazoiaren laguntzaz pentsatzeko eta hitz egiteko edo idazteko gaitasuna daukat behintzat, eta ez nago, antza denez, erabat galdua. Oraindik. Eta... Realak? (Ikus 2005-III-7.)

### **2006ko maiatzak 7**

Azkenean, Realak lortu du “salbatzea”: Espainiako Futbol Ligako lehen mailako taldea izango da hurrengo denboraldian ere. Beharrik! Zinezkoa denean, kontsolabide zailekoa da kirolzalearen samina: batetik, zinezkoa delako; bestetik, absurdua delako eta inorengandiko kontsolabiderako eskubide etikorik gabekoa.